

Euskal liburutegi bat amerikar mendealdean

Orain dela berrogei urte sortu zuten Robert Laxaltek eta William Douglasssek Euskal Liburutegia Renon, Euskal Ikasketa Programari sostengua emateko asmoz. Baina urteak aurrera joan dira, eta aldatuz joan dira beharrak. Euskal Liburutegia bere rola berriro definitzeko tenorean da; haatik, aurrera egiteko baliabideak ez ditu soberan.

Estibalitz Ezkerra.

“Zer galdu zaizu Renon?”. Hamahiru orduko hegaldiaren ostean, Los Angelesko aireportuan lurra hartzera gindoazen eta segurtasun gerrikoa lotzeko eskatzen ari zitzaigun azafata mikrofonotik. Lo kuluskadak, filmak eta irakurketa tarteko, bidaian zehar ondoan eserita nuen emakumeak eta biok ez genuen hitz egiteko aukera handirik –ziurrenik ezta gogorik ere- izan.

Kortesiazko berba pare bat esanak genizkion elkarri, eta haiei esker jakin nuen jatorriz amerikarra zela bera, baina lan kontuengatik urteak zeramatzala Islandian bizitzen. Udako oporrak aprobetxatu ei zituen jaioterrira itzultzeko, eta plan aldaketaren zergatia galdetu baino lehen –irailean baikeunden orduan-, hurrengo egunean alaba ezkontzen zitzaiola aipatu zidan, horixe zela Kaliforniara bueltarazi zuen arrazoiak. Bat-bateko isiltasunak aditzera eman zidan neure burua aurkeztea zegokidala, baita labor egin ere. Euskalduna nintzela eta Renon urtebete igarotzeko asmoa esan nion, eta galderarik jaso ez nuenez bere jakinmina aseta zegoela pentsatu nuen, baina oker nengoen. Oker nengoen, bai, ezin ulertu bestela tupustean, lurra hartzera gindoazen unean bertan, emakumeak egin zidan galdera. Eta hitzak ahoskatzeko doinuagatik aise ulertu nuen Renora eraman nintzeketen arrazoiak aztertzen igaroa zuela bidaia osoa, argi baitzegoen, berarentzat bederen, ez nuela laneko estresa kentzearen alkohol eta joko bila ibili ohi direnen antzik, amerikar askorentzat, ez soilik atzeritarrentzat, zera baita Reno: kasinoen hiria.

Benetakoa da, zertarako ukatu, Javi Cillerok “Ero hiria” lanean azaltzen duen irudia. Ikustekoak dira Virginia Street deritzon kale nagusiaren inguruan pilatzen diren eraikin erraldoi argitsuak, haietan goizetik gauera eta astelehenetik igandera bitartean dirua xahutzen ibiltzen diren jokalarri amorratuak, herritar arruntak gehienak, bizimodua erraztuko dien sari nagusiaren bila edo, besterik gabe, bakardadea arintzeko giderrari tiraka. Eta beren eguneroko ibilerek lehengo historia baten izenburu berbera daramate: Silver Legacy, El Dorado... Meategitik txanpon makinara igaro dira, eta ezin ezberdintasunik aurkitu bata eta bestearen artean.

Luzea da Renoko kasinoen itzala, bai, baina haien eskumenetik kanpo badira bestelako guneak, bestelako errealitate baten erakusle. Ibai inguruko aretoak aipatu genitzake, kultura underground-aren lekuko eta sostengu, edo auzo hispaniarretan diren galeria alternatiboak, edo unibertsitatea bera,

urtean zehar goi mailako hainbat ekitaldi antolatzen dituen, edo parkeak, Rancho San Rafael izenekoak haien buru. Eta azken horren harira: Rancho San Rafaelen dago muino baten kokaturiko zaindari isila, euskal artzainaren omenezko monumentua. Izan ere, iragan, mendean zehar euskaldun asko joan ziren Renora tokiko arrantxoetan artzain aritzeko. Ez bakarrik Renon; Nevada osoan, Kalifornian, Idahon eta AEBetako beste zenbait herrialdetan ere izan zuten euskaldunen berri, baina lehenengoak, ez beste inongo tokik, jaso zuen Euskal Ikasketen Programa lehenik –gaur egun Euskal Ikasgunea denaren abiapuntua- eta Euskal Liburutegia ondoren. Biek ala biek lanean jarraitzen dute, Nevadako Unibertsitatearen barruan. Ez hori bakarrik; Amerikako euskal diasporari begira erreferente bilakatu da Euskal Liburutegia, eta aurrerantzean ere mailari eustea du helburu.

Diasporaren memoriaren sostengu

Euskal Ikasguneako Liburutegiaren sorrera uneak 1960ko hamarkada amaierara garamatza. Ordurako martxan zen, Nevadako Unibertsitatearen barruan, Euskal Ikasketa Programa delakoa, urte batzuk lehenago AEBetako antropologo talde baten sustapenari esker sortua. Hasieratik bertatik jakinmin handia piztu zuen programak, euskaldunek Ipar Amerikako zenbait eremuren bilakaera sozio-ekonomikoan bete zuten rola kontuan izanik gutxi ikertuak baitziren komunitate jakin horren ingurukoak. Hala ere, ez zen programa osoa. Irakurketa hori egin zuten Robert Laxalt idazleak, Ameriketara artzain joandako euskaldun baten semea berau, eta William Douglass antropologoak. Ez zen osoa, hain zuzen, gauzarik inportanteena falta zitzaielako: liburutegi bat. Laxaltek eta Douglasssek argi zuten zentro akademiko orok bere ikasketa esparruan ikertzea ahalbidetuko duen espazio bat behar duela. Gainera, ezin zen ahaztu une horretan Euskal Herriaren egoera ez zela batere samurra: Francoren erregimenak urte batzuk zeramatzan indarrean eta horrek, euskal kulturaren garapenari begira, aldaketa eta traba handiak ekarri zituen. Beraz, arrazoi estrategikoak ere egon bazeuden euskal liburutegi bat sortzearen ideia atzean.

Arlo pribatutik jasotako diruaren bitartez egin zuten Euskal Liburutegirako lehen erosketa –eskuraturiko funtsen artean Philippe Veyrin-en artxiboa zegoen, baina behin Nevadako Unibertsitatearen onespina jasota, zeinak Euskal Liburutegia Getchell Liburutegi Nagusian barneratu zuen, erosketa eskari guztiak unibertsitateak berak bideratzea erdietsi zuten. Dena den, instituzionalizazioak ez zuen borondatezko lanarekin amaitzerik lortu. Euskal Liburutegia proiektua xumea zen berez, eta aurrera ateratzeko ingurukoen laguntza ezinbestekoa zuen. Gaur egun artxiboaren parte diren argazkietan ikus daitekeen bezala, gaueko ordu txikietara arte egoten ziren hainbat emakume euskaldun liburuak katalogatzen.

Liburutegiaren nondik norakoak zehazteko orduan, Jon Bilbaoren etorrera laguntza handikoa egin zitzaion Laxalti eta Douglassi. Izan ere, zentroa edukiz hornitzeaz aparte, euskalduntasunari buruz edo harekin zerikusia izan zezaketen gaien inguruan idatzitakoaren katalogoa osatzeari ekin zion Bilbaok, zeinaren emaitza izan zen “Eusko Bibliographia” argitalpena.

Definizio baten bila

Urteak aurrera joan ahala haziz joan zen liburutegia, baita bere beharrak aldatuz joan ere. Laxaltek, Douglasssek eta Bilbaok jakin bazekiten mementu bat iritsiko zela zeinetan zentroak bere norabidea berriro planteatu beharko zuen. Eta une hori heldua da jadanik. Iragan otsailean Nevadako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiak Imanol Irizar, HABEko liburutegiaren sortzaile eta zuzendari izandakoa, izendatu zuen Euskal Liburutegiko arduradun, haren esku utziz erakundearen berrantolaketa. Osasun arazoak zirela eta, uda hasieran Euskal Herrira bueltatu behar izan zuen Irizarrek eta orduz geroztik haren ordezkapena egiten dabil Nere Erkiaga, Xenpelar Dokumentazio Zentroko artxibozain izandakoa. “Imanolek [Irizar] argi ikusi du Liburutegiak bete behar dituen funtzioak finkatzeko orduan kontuan hartu beharra daudela hura sortzera eraman zuten arrazoiak; hau da, Euskal Ikasguneari eskaini behar dion zerbitzua ezin dugu begi bistatik galdu eta, alde horretatik, gure lehen egitekoa izan behar da ikasguneak bultzatzen dituen ikasketen sostengu izatea. Horretaz gain, Ipar Amerikako euskal diasporari begira, baditugu betebeharrak batzuk. Azken batean, artxiboa beraiek sortutako materialetik abiatuta joan da osatzen eta bide horretatik jarraitu behar dugu. Diasporatik eta Diasporaren inguruan sorturikoa batzeaz, zaintzeaz eta zabaltzeaz arduratu behar dugu, kalitatea bermatzeaz ahaztu barik, Euskal Liburutegiak mundu angloxaotik Euskal Herrira zabalduriko leihoa izaten jarrai dezan”.

Hilabete hauetan, liburutegia sendotzeko Irizarrek planteaturikoa praktikara eramatea izan du helburu Erkiagak, eta lehen urratsa funtsak antolatzea eta katalogazioa bideratzea izan da. “Sortu zenetik hona, liburutegiak edukiei eman die lehentasuna. Horri esker du maila. Baina zertarako balio du hamaika liburu eta artxibo edukitzeak erabiltzaileak ez badu haien berririk?”, azaldu digu Erkiagak. Izan ere, Irizar zentrora iritsi zenean azken urteetan jasotako argitalpen ugari artean katalogatu barik zeudela konprobatu zuen, eresketa politika eta katalogazioa ez baitira modu berean garatzen joan. Horregatik, Irizarren planteamenduei jarraituz, lehen urratsak bildumak antolatzera zuzendu behar dituztela uste du Erkiagak. “Ezinbestekoa da bilduma osoa kontrolaturik egotea, gerora digitalizatu eta Internet bidez erabiltzaile ororen esku jarri ahal izateko. Hilabeteotan, liburutegian lanean gabiltzanok bildumen zein artxiboen deskribapena osatzea lortu dugu, baina helburua da funts guztiak katalogatuta izatea eta informazioa datu base batean sartzea. Sancho el Sabiok baditu jada bere funts guztiak digitalizatuta, eta horrek erraztu egiten ditu kontsultak. Azken batean gu Renon gaude, eta askori zaila egiten zaie honaino etortzea. Liburuen kasuan liburutegi arteko mailegu sistemaren bat era daiteke, baina dokumentuen kasuan lehen posta arruntez egiten zena –eskariak jaso ahala egiten genituen fotokopiak eta ondoren postaz bidali-, horrek zekartzan denbora arazoekin, berehala kudea daiteke Internet bidez. Informazio guztia sarean jarrita, Euskal Herrira ez ezik diaspora osoarengana ere irits gintezke”.

Argitalpenen mailari begira, zalantzarik ez dago harribitxi bat dela Renoko Euskal Liburutegia. “Arlo horretan, liburutegiak zor handia du Bilboko Urretxindorra liburudendako Carlos Zarragoarekin. Jon Bilbao Renon zenean, Zarragoarekin jarri zen harremanetan bera ardura zedin Euskal Herrian argitaratzen zenaren jarraipena egiteaz eta liburutegiarentzat

interesgarriena zena aukeratzeaz. Zarragoak argitaletxe handiak ez ezik talde txikiak ere kontuan hartu zituen, eta horri esker gaur egun eskuratzen zailak izango liratekeen liburuak aurki daitezke Renoko Euskal Liburutegian”, azpimarratu du Erkiagak. Artxiboari dagokionez, dokumentuez gain argazkiak (Euskal Ikasguneak berak bidalitakoak, Amerikako Estatu Batuetan geratu diren familia euskaldunek emandakoak zein Euskal Herritik jasotakoak), ikus-entzuntezko materiala (irudi edota soinu grabaketak), zein bestelako materialak (afixak, *carving*-en euskarri diren zuhaitz enborrak, euskal janzkera tradizionalaren erakusgarri diren piezak...) daude funtsen artean. Dokumentuen barruan, badira Euskal Herritik ekarritako artxiboak -1936ko gerrarekin lotura duten dokumentuak eta bestelakoak-, Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasguneetik igarotako irakasle zein ikasleek utzitako dossierrekin eraturikoak zein Diasporari buruzkoak –familia artxiboak daude batetik, eta erbestera etorritako euskaldunek antolatutako elkartearen artxiboak (ardi jabeek osaturiko Western Range Association erakundearen artxiboa, esate baterako) bestetik-.

Lanerako gogorik ez da falta Euskal Liburutegian, baina ezin ahanztz dezakegu liburutegi bat dela, euskal gaietan aditua den liburutegi bat Ameriketara. Baliabideak ez dituzte soberan, eta Erkiagak esaten duen bezala, “liburutegiek beti behar dute dutena baino gehiago”. “Imanol [Irizar], hau da, euskal liburuzain bat, kontratatzeke ahalegin handia egin zuen Nevadako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiak. Euskal Liburutegia mantentzeko eta ditugun arazoak konpontzeko borondatea izan badute, baina une honetan ekonomikoki makal dabil Liburutegi Nagusia eta aurrekontuak gelditu behar izan dituzte. Mozketak ere gertatu dira; esaterako jadanik ez da katalogadorerik liburutegian. Horren ordez argitalpenak eskaneatzeko proiektu bat abiatu dute, baina lan bolumenari begira ez da batere eraginkorra”, kexu da liburuzaina. Baina nola eman egoerari buelta? “Gure ustez, Euskal Herriko liburutegi eta erakundeekin hitzarmenak lortzean dago gakoa. Ez dugu baldintza bako laguntzarik bilatzen. Truke bat egitea litzateke, besterik gabe: Euskal Liburutegiaren funtsez balia daitezke Euskal Herrian, eta guk laguntasuna jaso haiengandik”, amaitu du Erkiagak.